



Prentsa oharra

Ekonomia zirkularra

Merkatu publiko eko-arduradunen alde

Angelu, 2019ko otsailaren 5a – Ekonomia zirkularra sailean « merkatu publikoak eta obraleku iraunkorrak » gaiaz, berriki topaketak egin dira Angelun.

Karia hortara, Bil Ta Garbi Sindikatuak, « Association Aquitaine des Achats Publics Responsable » eta Nobatek institutuak, obraleku merkatu publikoetan, xantierretako hondakinen birziklatzea eta berriz erabiltzearen garatzeko Frantzia mailan den lehen argumentu orriaren aurkezpena, egin dute.

Eraikuntzaz, Frantzia mailan den argumentu orri bakarra

Argumentu orri hau, merkatu publiko dei (kolektibitate, administrazio, egitura publiko) eta pribatuendako (promotore, alokaidatzaile sozialak) egina da.

230 lerrotan, ingurumenaren zaintzeko eta transizio ekologiaz aholku eta xehetasunak sailkatuak dira.

Tresna aldakorra, denen esku

Tresna, merkatu publiko eta eraikuntza iraunkorrean ari diren lekuko aktoreeri aurkeztua izan da lehenik. Horietan dira Euskal Hirigune Elkargoa eta Pirinio Atlantikoetako Eraikuntza eta herri-lanak federazioa. Ofiziokeen oharren arabera, tresna moldatua izaten ahalko da birziklatze eta balioztatze sareekin eskuz-esku.

Denek baliatzeko gisan izanez, interesatuek atxemanen dute www.achatsresponsables-aquitaine.fr eta www.biltagarbi.fr web gunetan, 2019ko martxotik goiti.

Legeak diona

Argumentu orria, legeak lurralde kolektibitate eta eraikuntza saileko ofizialeeri hondakinen kudeatze sailean finkatu araudieri, erantzun bat da.

2015eko agorrilan, eraikuntza sailean, garapen berde baten alde Transizio Energikoaz legea finkatu zen. Horrek dio, 2020an, obralekuetako hondakinen %70a birziklatu beharko dela (egun, Akitania mailan %45a birziklatzen delarik).

Bestalde, 2016eko martxoaz geroz, kolektibitateak pusatuak dira xantierretako hondakinen birziklatze eta berriz erabiltzearen behartzera obraleku merkatu publikoetan.

Merkatu publikoak lagundu ekonomia zirkularra dinamikan

2016an Bil Ta Garbi Sindikatuak, « Association Aquitaine des Achats Publics Responsable » eta Nobatek institutuak xede bat abiatu zuten, obralekuetan xantierretako hondakinen birziklatzearen eta berriz erabiltzearen garapenaren laguntzeko.

Akitaniako ADEME egiturak %70a eko finantzamendu bat proposatzen du. Baldintzak :

- Ekonomia zirkularra dinamikaren bultzatzea lurraldean, berriz erabiltze eta birziklatze sare gaien identifikatuz
- Hondakinen eta ekai naturaleen kudeaketan merkatu publikoen adibidetzat hartzea, argumentu orria baliatuz
- Lekuko aktore desberdinen artean harremanen sortzea

Ekonomia zirkularraz topaketak : elgarrekin, eskuz esku !

Ekonomia zirkularraz diren lehen topaketa hauetan, 150 bat profesional bilduko dira : hautetsi, kolektibitateetako teknikariak, BTP saileko lantegiak, hondakin sareak, arkitekto, promotore, alokaidatzaile....

Helburua dute merkatu publiko eta eraikuntza sailaren mobilizatzea :

- 2020erako hondakinen %70aren balioztatzeko
- birziklatu ekaien erabiltzea ekai naturalen baliatzearen murrizteko,
- ardurazko materialak hornituko dituzten lekuko sareen bultzatzeko

Bi egunez, lekuko andana bat entzunen da. Esperientzi partikatze eta eztabadak proposatuko dira.



Parise aldeko « Pavillon de l’Arsenal » arkitektura eta hirigintzaz informazio zentroak proposatzen duen
« **MATIÈRE GRISE** » erakusketa
ikusgai Arkinovan.

« Matière grise » erakusketan, xantierretako hondakinak eraikuntzako ekai bezala ikusiak dira.



75 xedek probatzen dute xantierretako hondakinak berriz baliatzen ahal direla eraikuntza berriendako. Adibidez, Bruselan, adreilu birziklatuarekin adreiluzko paretak egiten dira bizilekuendako ; Massachusetts eskualdean, autopistako viaduc hondarrak etxe eraikitzeko baliatuak dira ; Bruselan beti, Europako Kontseiluarendako eraikitzen den egoitzaren alde batean errekuperatu 3000 lehiu berriz erabiltzen dituzte.

Berriz erabiltzeak posibilitate ainitz eskeitzen ditu. Gogozkatzeko pasta bada !

EGITARUA

Asteartea, otsailaren 5a – 9 :00 – 17 :00

OBRA PUBLIKOAK

**Birziklapena obra publikoetan :
galdera eta eskeintzak bateratu**

Xehetasunak bildu :

Merkatu publikoetan nola hondakinen gutitzea eta berriz erabiltzea bultzatzen ahal den.

Berriz erabiltzearen teknikak, birziklapena eta birziklatu ekaien berriz erabiltzea.

Formakuntza, Girona Eskualdeko Kontseilu Orokorreko azpiegitura zerbitzuak segurtatuko du.

Egun guzian, lekukotasun desberdinak entzuten ahalko dira – berriz erabiltzea eta birziklapena baliatzen duten ofizialen lekukotasunak bereziki. Hor izanen dira ere :

ADEME : « legedia eta oinarri juridikoaz xehetasunak »

Pirineo Atlantikoetako Departamendua :

« ekai alternatiboetaz gidaliburua eta Merkatuen idazteko laguntzak »

Pirineo Atlantikoetako BTP Federazioa :

« hondakin gelduen balioztatzea »

AUDAP egitura : « hondakin gelduak nola konduhan hartu merkatu publikoetan »

CEREMA egitura : « eraikuntzako harrihondarren berriz erabiltzeko teknikoetaz gida »

Goyhetche enpresa : « Bidarten duen birziklatze plataformaren kudeantza »

Lhoist enpresa : « lekuz aldatu lurren gisuarekin tratatzea »

RTEk : « elektrizitate garraiatze sareak xantierretako hondakinen kudeaketan »

Asteazkena, otsailaren 6a – 9 :00 – 17 :00

ETXEGINTZA

Xantierretako hondakinak berriz erabili eta birziklatuak baliatu obralekuetan

Egunaldi hau, ADEME, Bil Ta Garbi Sindikatua, Nobatek eta « Association Aquitaine des Achats Publics Responsables » egiturek proposatzen dute.

9 :00 – 12 :00 : **Merkatu publikoak : nola ekai birziklatuak sarrarazi kontsulta txostenean.**

Argumentu orriaren aurpezipena – hortan erabiltzeko prest diren teknika fitxak atxemaiten direlarik..

Lekukotasun desberdinak entzuten dira :

Pirineo Atlantikoetako Departamendua

« Merkatuetan ekai alternatiboen baliatzearen alde hartu duen engaiamendua »

Office Public Habitat Sud Atlantic

« Argumentu orriaren baliatzeaz oharrak »

12 :00 – 13 :30 baskaria

13 :30 – 17 :00 « ekai birziklatuak eta berriz erabiltzea : lekuri ote dutea lekuko ekonomian ? »

Etxegintzarako ekai birziklatuen ekoizpena

Nobatek : Jadanik egina den lanaren aurkezpena

ADEME : « berrikuntza/inbestimendu/xedeeri laguntza baliabideak »

Pirineo Atlantikoetako BTP Federazioak :

« Ekai birziklatuen garatzeak dituen interes eta arrastak »

Quatéco enpresa : zelulosa guata isolagailu ekoizlea

12 :00-13 :30 baskaria

Eguna CNFPT egiturarekin antolatua da. Kolektibitateetako langileek formakuntza plangintzan pasarazten ahal dute. Hortarako, izenek eman behar dute CNFPTko IEL plataforman. « Intégration de la gestion des déchets dans les marchés de travaux » ikastaldia, C4001 011 kodearekin

Circouleur Tinta biriklatu ekoizlea

Baionako CCI eta merkatal ganbara :

« beharren arabera lekuan lekuko laguntza »

Etxegintzan berriz erabiltzearen garatzea

Nobatek : Jadanik egina den lanaren aurkezpena

Bellastock : etxegintzan berriz erabiltzearen bultzatzailea (bideo konferentzian)

IDRE : desegite eta berriz erabiltzearen interprofesionala

Harremanak :

Magali Houllier – Responsable communication NOBATEK/INEF4 / 07 76 39 11 99

Nicolas Seguin – Responsable communication Syndicat Bil Ta Garbi / 06.72.74.06.58